

**KARMEL ALDIZKARIA
DIGITALIZATUA
(1931-2007)**

Urtarrilaren 28an Markina-Xemeingo Udaletxeko bilkura aretoan kultur ekintza berezia izan zen. *Karmel* aldizkariaren historia guztiko idazlanen digitalizazioaren aurkezpena.

2007. urtea Udalak Karmeldarren urte izendatu zuen, karmeldarrak udalerrian izan duten eragina eta egin duten lana eskertu nahi izan zuen Udalak. Urte hartan hainbat ekimen jarri ziren abian, besteak beste, ***Karmel aldizkaria*** digitalizatzeko erabakia hartu zuen Udalak, Karmel digitalizatuta DVD baten eskaintzeko asmoz.

Eta aurkezpen horretara batu zen talde eder bat, arratsaldeko zazpiak ziren, aretoa argitsu, pantaila eta mikrofonoak adierazle zirela. Kazetariren bat ere han agertu zen.

Jabier Alberdi jaunak, Markina-Xemeingo alkateak, denoi ongietorria egin ondoren, aurkezpen horren zergatia azaldu zuen. Hona hemen beraren hitzak:

“Danok daukagu gogoan 2007. urtean zelan udal honetako kultura eta euskera batzordeak hainbat ekintza bultzatu zituan. Gaurko gure herritarrak eta ingurukoak konturatu daitezkan karmeldarrak ze garrantzia euki daben Markinako bizimoduan, bizimoduan zentzu guztietan gainera..., horretarako ipini ziren



ekintzak martxan; batzuk urte haretan hasita amaitu genduzan, beste batzuk ez. Eta hareetariko bat gaur amaituta ikusten dugun ekintza da.

Karmel aldizkariko idazlan guztiak (1931-2007) digitalizatzeari, historia guztiko lanak disketean sartzea izan zan erabakia, edo konpromisoa... Lana martxan jarri zan, eta gaur hainbat denbora geroago amaituta agertzen da, pare bat urte behar izan dira.

Lan teknikoa bera Plazagune enpresak egin dau.

DVD baten Karmel osoa eskeintzen da.

Lan garrantzitsu honek beste bide bat be eskeintzen dau: *Karmel* aldizkaria WEB-gunean daukagu; hainbeste urtetako Karmeleko zenbakiak sarean egongo dira edonondik ikusteko gai izan daitezak”...

Alkate jaunak asmo bat agertu zuen: lan hau esku askotara heldu dadila, eta Karmel aldizkariari haize apur bat emanaz, indartsu jarrai dezala.

Gero alkateak berak euskaltzainburuari, Andres Urrutia jaunari, eman zion hitza egun hartako ekintzari buruz eta Karmel aldizkariaren digitalizaziori buruz zuen ikuspuntua ager zezan.

Eta **Andres Urrutia jaunak**, entzuleak agurtu ondoren, Karmel aldizkariarekin duen historia pertsonala kontatu zuen,

baita Karmel aldizkariaren digitalizazioari buruz zituen esatekoak ere; hona esandako gauza batzuk:

“*Karmelen* inguruan Markinako Udalean hitz egitea beti da pozgarri eta baita aberasgarri ere. Gaur honantza nentorrenean estu eta larri, ‘arin-aringan’ Donostiatik, pensatzen egon naz: eta nik orain ikusiko dot *Karmel* osoa leku txikitxo baten, hor ikusiko dot orain disketetxo baten *Karmelen* historia osoa.

Baina nire historia *Karmelekin* beste bat da: orain dala 30 urte edo... hasi nintzan *Karmel* irakurten; gogoratzen dozue? Orduan kolore bakarrekoa zan, han aurkitzen ziran Melo Alfarezaren artikulua, Aita Lino eta Santirenak, Uribarren gaztearenak, etabarrenak. Gogoratzen naz: irakurten neban ez etxean, Ereñoko puntako Gabikako auzoan baino, hango abadea *Karmelen* harpideduna zan eta Santiren laguna; ez neban *Karmel* ezagutzen, eta denboraz... Gabikara joaten nintzenean bisitan, han irakurten neban *Karmel*...

Gero Madrilera joan beharra... oposizioak prestatzen.

Karmelen irakurle nintzan...

Eta egun baten Julenek harrapatu egin ninduan kalean, gogoratzen naz non, Artabide kalean, gaur zaharren egoitza da-goan lekuan, esanez: zer edo zer egingo dozu *Karmelerako*?

Eta egin neban zerbait: ‘Peru Abarkaren 6. autua’.

Nire lehenengo artikulua *Karmelen* ikusita, esan neban: ‘bazaz nor edo nor, *Karmelen* be agertu zara’...





Bueno, hasi ginan idazten, Julen beti atzetik... hau egizu eta bestea egizu...

Haria korapilatzen joan zan, produkzio gehiago, bestelako jendea etorri zan, jende gaztea, jende barria. Hor egin da nire ustez gauza polita: Linok eta Santik hasi eben kultura azpigitura hori, *Karmel*, orduan hasi zan moduan, ba, gaur egunean Euskalgintzaren barruan azpigitura horren kide garrantzitsu esanguratsua dala; ez dogu hori ahaztu behar. *Karmelek* badauka presentzia Euskalgintzaren barruan.

Gaur beste pauso bat aurrera joan da; orain teknika barriei esker *Karmel* batuta daukagu, ondarea gorde dogu, babestua da; eta orain erabili egin behar dogu.

Azpmarratu nahiko nuke, *Karmelek* gaurko euskalgintzan, Euskal Herrian daukan zeregina; euskalgintzan Euskaltzaindiaren ikuspenetik holako ekimenak ez dira oso ugariak, eta zaindu beharrekoak, babestu eta garatu beharrekoak dira.

Gaur egunean badakigu hizkuntzetan zelan holako corpusak behar diran... Gero, esate baterako, Euskaltzaindiak lan egin behar dauanean, holako lanak erreferentzia moduan erabitzen ditu... Hitz edo berba bat aukeratzen dogunean jakin behar da nork, noiz eta zertarako erabilten dauan... Eta hor daukagu testigantza ezin hobe. Hori baliatu geinke.



Berbak aukeratu behar diranean, eta zelan erabilten diran berbak jakiteko, klikatu eta han agertzen dira. Orain badakigu, baliatu geinke, orain jakin geinke: *Karmelen* nork, noiz, zertarako, non erabili dauan berba hori... Eta hau aberastasun handia da.

Baina hori martxan jarri behar da, eta baliatu eta profitatu geinke, hori be aurrerakuntza da guretzat.

Behingoz esaten zan euskera baserritarra zala, gero kaletarra, orain, oraintsu entzun dodan lez, globalizatua egin dala. Globalizazio horretan *Karmel* be sartua dago, eta martxan jarri behar dogu. Ez ahaztu globalizatua baldin badago *Karmel*, aurrera be egin behar dogula..., hau da ondarea gordetzea; jakin behar dogu nondik gatozen, eta nora goazen, ‘nora goaz’ horrek ahalegina eskatzen dau, hemen karmeldarrek egiten dabena, beste guztiok dantzan jartzeko... eta aldian-aldian gure *Karmel* esku artean izateko, ez bakarrik guk, baita euskalgintza osoan be.

Teknika barriak baliatu behar doguz... Hor dago fruitua, emaitza, are aberatsago egin behar dogu, gure lanetan baliatuz, aberastu egin behar dogu, bai gure lanaz, erabiliz”.

Alkate jaunak gero **Jabier Kalzakortari**, herriko seme eta Deustuko Unibertsitateko irakasleari, eman zion hitza, ikuspuntu literariotik zertxobait azaltzeko. Jabierrek labur hitz egin zuen, eta aldizkariaren izatea eta jarraipena azpimarratu zituen



batez ere. Eta beste gauza batzuen artean hauek hartu genizkion:

“Euskal aldizkarien arazorik edo problemarik gogorrenetarikoa, bizirik irautea da; ia danak bizi laburra izan dabe. Aldizkari asko sortu dira gure herrian, baina bizitza laburrekoak. Gitxi izan dira ibilbide luzekoak. Hamarkada bat iraun dabena indartsuak edo sendoak dira. 50 urte iraun dabena, gitxi baino gitxiago dira gure artean.

Beste arazoetariko bat argitaratzeko epeak errespetatu ahal izatea da. Aldi oro argitaratzen diranak gitxi dira; gehienak esan lei aldizkariak baino gehiago ahaldankariak dirala...

1931n, orain dala 80 urte, *Karmengo Argia* agertu zan, hobeto esateko, Karmeldar euskaltzale langileak argitaratzen eben... 1931 aparteko sasoi izan zan, gerra aurreko pizkundean sortu zan, euskal kulturaren loraldikoa dogu *Karmengo Argiaren* sorrerea.

Gerra ostean hamabost urteko isilaldiaren ondoren, izen laburragoaz, *Karmel*, ataritzen hasi zan aldizkaria. Hilean



behin, gerra osterik illunenean agertzen hasi zan, Aita Santi, eta Karmeldar behargin arduratsuen bidez...

Karmel inoiz baino indartsuago ikusten dogu gaur, *Karmel* inoiz baino biziago, 80 urteko aldizkaria

Karmel aldizkaria digitalizatua izan da, hori dala-eta batu gara hemen...

Euskal kulturako erreferente bat da *Karmel* aldizkaria... 20. mendean ibilbide luzea izan dauana, eta 21.ean hamarkada bat atzean itxi dauana. Horregaitik zorionekoak gara euskaltzaleok”...

Hurrengo alkate jaunak **Julen Urkizari**, Karmel aldizkariaren zuzendariari, eskatu zion aldizkariari buruz zenbait azalpen emateko. Hona *Karmelen* historia hitz gutxitan bilduz esan zituenak:

“DVD honetan aurkezten dan mamia KARMEL, euskal aldizkaria da, hau da, *Karmelen* zenbaki guztiak: 1931n hasi eta 2007. urtera arte.

Gainbegirada bat emon daiogun *Karmelen* historiari:

1. *KARMEL* historia luzeko aldizkaria dogu. *Karmengo Ar-gia* (1931-1936) aldizkari herrikoia; gerra zibilak hondatu eban aldizkaria. Lehenengo Zuzendaria Aita Martin Uriarte izan zan, eta 1936an Markinako priore izendatua izan zan, eta hilabete batzuk geroago frankistak Markinako kalean hartu eta kartzelara eroan eban.

Gerra hasi zanean Lino Akesolo zan zuzendari, eta kartzela zigor gogorra emon eutsien... Baita Santi Onaindiari eta beste askori be...

1951-1956 urteetan *Egutegi* lez agertu zan; eta gero (1957-1961) barriro aldizkari lez, baina 1961ean Gobernuak debekatu egin eban. Orduan Santi Onaindia ahalegindu zan aldizkariari lotutako argitalpenak ateratzen, liburu eran..., ahal eban moduan.

KARMEL, bere hirugarren aroan, 1970ean hasi zan eta gaur arte jarraitzen dau, gizatasunaren eta euskal kulturaren zerbitzuan.

Gaur *Karmel* adizkaria euskal kulturaren erreferentzia izaten ahalegintzen da. Uste dogu, gaurko gizon-emakumeak gizatasun sakonaren eta benetako balioetan sustraitutako kulturaren premina daukela.

Gazteak euren barruko idazketa-garra suspertzeko aukera izan dabe beti *Karmelen* (lehenengo karmeldarren artean, eta gero besteen artean). Idazleen sortzaile izatea alde interesgarri lez aspimarratu daiteke. Eta batzuk idazle famatu be bihurtu dira... (*Karmelen* idatzi daben izen ospetsuak: Mikel Zarate, Orixe, Basarri, G. Jauregi, Augustin Zubikarai, Lino Akesolo, S. Onaindia, E. Erkiaga, Enbeitatarrak, Sabin Muniategi, Aurre Apraiz, Gotzon Garate, etab. Eta gaurkoak ezagutzen dozuez, hemen dagoz batzuk: Andres Urrutia, Luis Baraiazarra, Patxi Uribarren, Jabier Kalzakorta, Patxi Juaristi, Juan Mari Arrizabalaga, Pilare Baraiazarra, Iñaki Sarriugarte, Juan Luis Goikoetxea...).

Karmelek bere tokia egin dau aldizkariaren artean, batez be askatasunean jokatu dau eta danentzat zabalik egon da: adibidez hizkuntza aldetik (euskalkiak eta euskara batua erabiltzen ditu, aukera idazle bakoitzaren esku utzirik).



Aldirik zailenetan, garai ilunetan, aldizkariak hilda lez egozanean, *Karmelek* eutsi egin eutson euskal kulturari eta hizkuntzaren zerbitzuari... eta 81. urtean aurkitzen da.

2. Danetariko gaiak erabiltzen ditu; eta batez be 1984tik gaur arte bost ataletan banatuta agertzen da aldizkaria:

Kultura, Karmel gehienbat aldizkari *kulturala* da, euskal kultura. Kantitatez be atal hau da nagusi: ehunetik 40 (%40). Gainerako atalak ehuneko txikiagoa hartzen dabe aldizkarian: **Gizartea** %13, **Eliza** %12, **Iritziak** %10 (hemen kritika batzuk be egiten dira), **Literatura** (*Kontu-kontari* eta *Letra gozoak* edo *olerkiak*) %25. Hemen dago beste berezitasun bat: *Karmel* (*Olertigaz* bat eginda) Euskal Herriko aldizkarien artean olerki gehien argitaratu dauana izan da.

Karmelek bere historia luzeko azken aldian Markina-Xemeinen dauka egoitza. Eta azken ekintza garrantzitsua Markina-Xemeinen egin da Udalaren bidez, DVD argitaratuz. Eskerrik beroenak Udalarari”.

Karmel aldizkariaren digitalizazio-lana aurkezteko bildurik geundenontzat interesgarria zen **Juan Mari Arrizabalagaren** azalpenak entzutea, bera baita Karmel Web-gunearen ardura-

duna; eta alkate jaunak Juan Mariri eman zion hitz egiteko aukera. Eta hona haren hitzaldi laburra:

“Karmel aldizkariaren web-gune aldetik ari natzaizkizue-
nez, lehenengo eta behin txalotu eta Markinako Udalari eske-
rrak eman beharrean gaude, Karmelen historia osoko edukien
digitalizaioa babestu eta finantzatu duelako.

Eta txalo eta esker on hau irakurle, idazle, kudeatzaile eta
ikertzaileen izenean. Mila esker!!!

Hain urruti baina hain hurbil gelditzen diren garai batzue-
tan, euskaraz idaztea heroi-lan bat zenean, eta erdi-tranpaz
eliztarrek aldizkari bat edo beste euskaraz argitaratzen zute-
nean, *Karmel*, xumetasunez baina tinko, euskal herria euskal
kulturaz elikatzen saiatzen zen.

Eta orain, Markinako Udalaren eskutik lan bikain hau da-
torkigu: Karmel historikoaren digitalizazioa. Eta digitalizazio
honen bidez iraganeko idazlan guztiak irakurtzeko aukera.

Ba, altxor honetan murgiltzen garenean,

- hainbat eta hainbat idazle ospetsuren distirak ikusiko di-
tugu,
- hamaika euskaltzale sutsuren oihartzunak entzungo;
- batzuetan, zuri-beltzeko film bat irudituko zaizkigu lan
horiek,
- beste batzuetan, euskararen maitasunetik eta etsipenetik
egindako oihuak, olerkiak;
- zirrikitu batetik begira bageunde bezala agertuko zaizki-
gu garai batzuetako berriak...
- Edozein kasutan, gizarte baten garai bateko dinamikaren
isla aurkituko dugu.
- Eta urteak joan eta urteak etorri, bere jarraipenean, gaur-
ko egunera arteko eboluzioaren zubitik zehar iragateko
aukera izango dugu.

Eta Karmelek aurrera darrai. Horregatik ongi etorri izan da-
dila gaurkotasunarekin bat egingo duen iragana.



Hau dena kontuan harturik, adierazi nahi nuke altxor hau Karmeleko web-gunean oso-osorik txertatzeko asmoa dugula.

Eta horretarako prestatuta gaude. Hala Karmel historikoa bere osotasunean era errazean

- alde batetik, DVD hauetan erabili ahal izango da
- eta bestetik, edozeinen eskura geldituko da Karmeleko web-gunean.

Ba eskatu didate pare bat minututan Karmelen web-gunea, eta bere konfigurazioa aurkezteko, orain azaldu den altxor honekin egongo den lotura adieraziaz.”

Gero irudi proiektatuz lagunduta, Juan Mari Arrizabalagak lehenik eta behin **Karmel** aldizkariaren web-gunea (www.karmeladizkaria.com) aurkeztu zuen, bai menu orokorraren edukiak, baita menu bereziarenak ere. Idazleen atala azpimarratuaz.

Atal honen asmoa zera zela adierazi zuen, Karmeleko idazle bizi guztien biografiak, bibliografiak (*Karmelen*, eta *Karmele*-tik kanpo argitaratutakoak) aurkeztea, egile bakoitzaren “erretlatu” osoa moldatuz. Berak esan zuenez, “idazleen atal honek